

KAPEL LUZE

ALA omendu izena ta ala izango da; bañan nik *sonbrallu kopalta* deitu izan diot, eta izen onekin lenago ezagutuko dute geyenak zer esan nai detan, buruan jarri detan lenengo izenakin baño.

Orain urte guchi arte ugari ziran kapel luziak Gipuzkoa'ko erriyetan, eta batik bat erririk chikiyenetan.

Batere gezurrik gabe esan liteke erririk chikiyenetan izaten zirala kapel luze aundiyeenak ¡Nolakuak berak! Luzian ezezik zabalían ere izaten zuten naikua. Alderdi guzietara oparo. Alakoen barrenian makinabat aldiaz katuak umiak egin izan dituzte batere estutasunik gabe.

Kapelak berak etzuten umeik egiten. Aundi Samarra azaltzian ausoak esango zioten jabeari: «umiak egítian, bat gorde» bañan etziran beñere ortara irichi.

Gero tankera guzietakoak izaten ziran. Batzubenk bian zabal eta gora zorrotz zorrotzak; bestiak bian eztu ta gora zabalak, guztititik bazan. Maigoz ere, asiyeeran guziyak beltzak izango ziran noski, bañan azkenarako batzubenk oritzen ziran, bestiak gorritu, ta beltzak ikusten ziran guchiyena.

Ikustekuak izaten ziran illondoko elizkizunetan. Banaka, banaka, bata bestiaren ondoren, ogei, ogei ta amar, berrogei baserritar igaroko ziran eleiz aldera, nork baño nork kapel ikusgarriyagoa.

Onenian motz, sendo, buru aundi bat agertuko zan kapela belarriyetatik bera sartubakin, solomosuetan balebilke bezela; ta bere ondoren etorriko zan, biar bada, beste kankallo kankallo bat buruban iñondik kapela ezin sartubakin, orratzakin eutsiya baleuki bezela, bañan luzian bai kana terdi. Batzubenk eramango zuten eskuiko belarri gañian, okeroker, ziyaran balijoa bezela; bestiak berriz garrondotik zintzilik, erortzeko zoriyan. Guztititik izaten zan ta zein baño zein parragarriyagoa.

Orrengatik esaten zan, errichikiyetakoa il obiratziak alayak izaten zirela. Parragarriyak beintzat bai.

Ikustekuak izaten ziran aize zakar gogor bat ateratzian; an joaten ziran kapelak aidian chori-prantzesak balira bezela.

Bañan orduban ere zertarako edo artarako ondo etortzen ziran kapel luziak. Batikbat pipa pištutzeko. Kapel barrenen pipa sartu ezker aiziaren ajolik gabe lasai pištutzen zan pipa. Gañera kapelak su artzeko ere bildurrik ez. Koipez ongi ornitua arkitzen bai zan.

Beste gauza bat ona ere ba zuten: eudiya gatik ajolik ez. Zenbat eta geyago busti orduban ta disdis obia jartzen zitzyoten. Ondo buztitzian, berri berriyak ematen zuten.

Gero, kapel luziakin saski biarrik ere ez. Buruan bai zeramaten saski nai bezelakua. Kapel luziaren barruan sartuko zuten, nai izan ezkerro, sendi guziarentzat aste beteko janaria. Ala baserritik errira jesterakuan etzuben bide tresnarik biar izaten; naikua izaten zuten kapel luziarekin. Bere barruan sartzen zituzten, maindiria añako musu-zapiya, pipa, toša, su arri, alzairu, dunda, deuda bat jartzeko aña gauza bai.

Estutasun piška bat izaten zuten kapela ateratzerakuan. Orrengatik etzuten ateratzen biar biarretan baizik: eleizan sartzerakuan eta abar.

Beztela, jakiña zegon zer gertatu biar zuben, burutik bera an erori biat zuten lur ikara balitz bezela. Izan ere lurrak bazuben ikaratzeko aña, kapel luze ayek ikusi ta.

Urrutikoechekuak cherriya saldu zurela esan zuten ansuetan, bañan echian il zuten. Gezurra, oitu aña cherrimoni ez zabaltzia gatik esan zuten. Etziran Pablo Joše'ren sumaketak, bere emaste Kašilda'renak baizik. Onek anai bat zeukarren ordia erriyan, ta etzuben laga nai cherrimonik bigaldu gabe. Ta bigaldu nai ziozkan inork ez ulertzeko tankeran.

Nai bezela egiteko garaya etorri zitzyon. Pello Joše'k ill-obiratze baterako jechi biar zuben errira ta kapel luzian sartu zizkan cherrimonik, ta nai bazuben ta ez bazuben an bigaldu zuben senarra anayarenzako eskeingaiakin.

Eleizan sartzerakoan ordia, oker bat egin zuben Pello Joše'k kapel luzia atera nayian, ta kapel luzetik bera erori ziran cherrimoniak. Berrialazagutu zuten guztiak zer esan nai zuben uste gabeko azalketa arek, eta auso batek, marinarizo biziyan, esan ziyon:

— Ez dek ori ire burutik atera.

— Orren burutik ez, baña orren kapel luzetik, bai.

KAITANO